

# OLERTI

Iru illabeteroko Aldizkaría  
(Suplemento poético de KARMEL)

ZUZENDARI: AITA ONAINDIA — LARREA (ZORNOTZA)  
BANATZAI LE: X. P. ALBIZU — BILBAO

I'GO URTEA

1959 GARAGARRILLA-IRAILLA

Gizonari berez dagokio eder-irritsa. Origaitik esan oi dogu: urlia edo sandia ederrak darabil, aize-bolada zakar baten eskuetan ba'lebil. Eta, ain zuzen be, egi ta eder biran gahiltz erdi-zoratuak, tximirrika auts-ariña argitaket inguruan lez. Eta arritzekoa ete? Biotz-barruan daukaguz, Jaunak ezarrita, joera bi oneik oso bizi: adimenak argia dau janari, barne-senak ederra. Eta guk ditugun barrenkemen guztiai bardintze egokia damotsen Jainkoak gale bi oneik be etzitian asetzeke itxi. Zoragarrero erein eban eder-azia gure ingurumari.

Eta nok ez, barruan sentitzen dauan ederraren tximiko eztiáz jabetzeko lain indar? Zein jauregi zein eliz garai bat ikustekoan,

anditasunaren itzalak lausotzen gaitu garra-  
be; margolariak lauki bikainean ipiñi danda  
arima usiak, zurlarutu; abes-batz naiz orke-  
ta baten jardunak, gogo-ernaitu. Eta zer oler-  
kariaren arnas aundiko bertso-saillak irakur-  
tean? Eta esatean, Bedoña'n Marin'go nes-  
katillak Loramendi'renak esan ebezan lez  
Negarra datorkigu, ixil-ixil, matrail gorritu-  
tan beera.

Baiña, au olan dalarik, ez gara guztiok ta-  
barnean daroagun edo izadiak eskintzen dau-  
kun ederra bildu, jaso ta adierazteko; are  
txiago, gai ezbaridiñak alkar nasturik, eder-  
barria sortzeko. Sortzaille andi, egia, Jainko  
dogu soillik; besteok Aren buztarpeko sor-  
tzaille txikin besterik ez gareala autor bear  
baiña sortzaille gara, naiz-ta beeragoko ma-  
lla ta neurrian. Eta nortzuk ditugu oneik  
Jainko antzera sortzaille diran izaki gure-  
ok? Ertilariak, antzelariak: erderaz esan, *er-  
tistak*. Eder antzetsua dagie oneik, goitiki  
argi-aldi txinpartatsuz buru-biotzak goritu-  
rik.

Au doiñu ta otsez baliatzen yaku edem  
adierazteko; bestea, arri, zur, margo ta aba-  
rrez. Mintzoeraz ederra dagianari, elertza  
deritxogu, *ots eler-eder-zale*. Itzak eskutu-  
tzen ditu elertzaleak, tresna egoki lez, edem  
antzez jaulki ta azaltzeko. Elertzale era be-  
teko izena dau, ta zelako saillari lotu ta jar-  
dun, alako izen berezia damotsagu: izlan-  
eletari, olerkari, eleberri-zale, antzerkille-  
kondaira-zale, ipuinlari, saiotzaille, eledetse-  
le, artezkari edo epaille ta abar.

Ertilarien artean batzuk *asmotsuak* dau-  
antzetsuak beste batzuk. Bereko jit ta iz-  
kera asmotsus dabenak, au da, sort-indar be-  
rezkoa dabenak ertilari gorenengoak dir-  
lrazan edo sortu, egia esan. Jainkoak bako-  
rik egin oi dau, ezerezetik atera ta sortu

berari dagokio-ta. Gizasemeak, beerako mai-  
lan beste ainbeste dagi bere asmamenaren ar-  
gi ta indar arrigarriz. *Asmamen* (irudimen,  
olermen) andiko ertilariak gaiztasun andi ba-  
rik billatzen ditu gai osterantzeko ta gogai-  
nort-jagiek, bizi te argi ta giartsu adi-erazteko.  
Eta olako sugar berezia ezarten dautso di-  
joan edo idazten dauan guztiari, ots, bere zer-  
baitz jantzi ta gatzatzen dauz dagizan antze-  
lanak.

Bigarren maillakoak, ostera, ez dabe onen-  
besteko asmamenik, ezta erne-aldi ain bizi-  
rik be, baiña antzez dagie lan, eskuko yake-  
erriaren ezkutua, lan-era edo teknika ondo  
dazague. Labur: naizta asmamen ta irudimen  
goitar bage, sakon ta gunez egin ta azaltzen  
dabe ederra.

Bai ta ertilariak, zerbait egiteko, doai ta  
gaitasun batzuk nai-ta-ez euki bear. Eta eler-  
tzaleari gagokiozala, zeintzukaz apaindu ta  
jantzi bearra dau? Bi oneik bai beintzat izan  
bear dabe bere apaingarri: *sortzetikoak* eta  
*lortuak*.

1) *Sortzetikoak*. Oneik bitan bat-banatu  
daikeguz: erti-lanerako *deia* ta ortarako *gai-  
tasuna*.

Edozein arazotan gauzak ganoraz egin al-  
zateko *deia* bear dogu, joera berezia, barruan  
darabilgun irrika, antze-lana osotzera bultz-  
dazagigun barne-indarra. Izateagandiko zer  
spart au barik ez dogu ezer garairik egingo,  
naizta gogotik nekatu. Berarizko *deia* bear da  
erti-lanerako.

Orrezaz gaiñera, nai-ta-ezean erakutsi bear  
ertilariak *gaitasuna* be, edertirako ausi, ario  
ta tarramura. Itz au borobiltzen dabenak, ba-  
rez be, norberaren izakera sumakor gupera  
ta gogoaren aldetiko doai berezi batzuk dira.  
Ta orreïn artean: a) *adimen zorrotza*, iza-

diak eskintzen dauskuna artzeko ta abar; or-  
tarako, jakiña, adi ta ezagumen-indar guztiak  
neurri ta ein egokian euki bear, eta au edo-  
zetan naitaezko ba'da, askoz geiago erti-lane-  
tan; onetan ari danean, argi-aldia izan oi dau  
antzelariak, ots, bertatiko ta oituzko trebe-  
tasuna, ederraren zauskada artu ordukoxe,  
gogai edo oldozkun barriak ederkiro sortu ta  
itxura barrian oldozkun orreik adi-erazo ta  
iragarri al izateko. b) *Oroimena* arturiko era  
eder ta egigai bikaiñak gomutaganbaran gor-  
de ta iraun-azorik, joanaren pipit goxoa ex-  
galtzeko. d) *Irudimena*, zentzunen bitartea  
jasotako gai ta gauzen antz sumakorra ugari-  
tu ta onegaz eralketa barriak egiteko. Auxe  
nunbait antzelariaren doai berezi ta garran-  
tzitsuena: onek lagundurik, bada, eder ta su-  
makor, irudi-jantzi sotillez adi-erazoko ditu  
oldozkunik goi eta utsenak. Eta auxe ez ete  
dogu ertiaren muiña bera? e) *Biotzondoa*,  
atsegin edo nekegarri yakunaren aurrean ari-  
mea kezkatu daiten; ta doai au be atzera ezi-  
ña elertzaleak bereziki: ederra senti ta bil-  
tzen ez dakianak, sorkari eder anaiñak ikusiz  
barne-mindu ta idarrosten ez danak, neke  
burutu al izango dauz besteen biotzak ederret-  
ikutu ta kezkatan jarri dagikeezan erti-lanak.  
g) *Erti-sena*, ederra onartu ta alakoa ezta  
ezetsi dagian, antze-lanetan batez be: ortara-  
ko ederra zer dan ta nun dagoan jakin bear  
da, bai ta oartu edo sentidu be. Sen edo aoxu-  
ri au ertilari danak euki bear dabe, gitxi-  
ko, baiña elerti-zaleak era nabarmenean.  
Doai au barik, burutu bai burutu daiteke  
edertasun batzuk, baiña bai errez uts eta  
akats-zulo andietan amildu be. Baietz diño-  
tzu, orrelaxe dala munduko erri guztietako  
literatur-kondairak. Ba-dira epopei edo poe-  
ma andiak, zer edo zer izan nai dabena,  
eder-gurguluz bakarrik josiak.

2) *Gaitasun lortuak*. Beste zenbait gaita-  
tasun nobere indarrez ta oar-ikasiz jadetsi  
geinkez. Gizon jantzia, gizon landua, esan oi  
da. Zer adi-erazten ete dogu esaera orregaz?  
Aitatzen dogun ori asko irakurria, asko ika-  
sia dala, kultura andikoa dala. Ba-da, beraz,  
elerti-kultura be, ta ederti guztiak era batera  
ta geuk jardunez egin nai dogun ertia bera-  
rik ikasiaz lortzen da jakintza edo ele-kultu-  
ra ori. Umea azi ta ezi egin bear da, gizon  
izatera eldu daiten. Elerti-zaleak erabat azi,  
edatu, ugaritu egin bear dauz bere erti-gaita-  
sunak, lanez zein ikasiz. Azte onek osotasun  
garairaino garoaz, eta azi ezik lur landu ba-  
gearen antzera dira gure almen eta indarrak.  
Ortarako, ona zer egin: erti bakoitzaren  
arau-legeak ikasi, eredu onak astiz irakaurri,  
norbera be lantxoren batzuk egiten saiatu,  
oarmena ugaldtu izadi-zizkuak eta giza-bizitza  
arakatuaz.

Orobat lan-era edo teknika be bear da erti-  
lana burutzerakoan. Eta ez da pitiña bere ga-  
rrantzia. Gogoko yakun ertian jardun, bai,  
baiña erti orrek berezko ditun lege ta arauak  
zapaldu barik; margo-ertian diarduanak, esa-  
te baterako, zelan marrastu jakin bear dau  
lenengoz: olerkariak, ostera, bertso-gintzara-  
ko legeak. Noraezekoa dozu au, elitzake ba  
bestela erti-lanik, antzelariaren buruan ezik.  
Bulkoz eta irudiz eder sortu dana, orrelaxe  
txukun ta kirioz azaletik be iragar al izate-  
ko, eder-era ernai, errez ta trebea bear.

Ortik dator gero. ondoren martzalez, nobe-  
raren idazkera (estilo) berezia.